

Gure enpresaren kasuan, kostu finkorik ez dugu edukiko, bazkideetako batek garajea jarriko baitu, eta beste batek herramientak, ekoizpen fase osoa betetzeko. Aldakorretan, aldiz, lehengaiak erostekoak izango dira batzuk, eskala ekonomiakoak gainera. Hau da, gehiago produzitzea erabakiko bagenu merkeago lortzerik edukiko genuke. Honez gain, argindarra izango litzateke edukiko genukeen beste gastu aldakorra, lanorduen araberakoa izango zen eta. Wbguneari buruz, enpresentzat bereziki zuzendutako eta doakoa den web-orri programa bat ezagutzen dugu, internet bidezkoa. Hortaz, honek ere ez liguke inolako kosturik sortuko.